

Jose Ormaetxea, industriagintzari laguntzea akuilu

Bere izena Ermuko engranaje enpresa bati lotuta egoteaz gain, Eibarko Armeria Eskolaren zuzendaritzarekin ailegatu zen bere maila gorenera. Hari lotuta egin zituen urte luzeetan ikaslea izan zen, irakasle jardun zuen eta Zuzendari izatera ailegatu zen. Eskolak ezagutu duen berrikuntza eta modernizazio arorik esanguratsuena bere gidaritzapean eman zen. Koinatuarekin batera Ermuan jarri zuen tailerrak laster 75 urte beteko dituen honetan, ezagutu zutenek lagundu digute bere gaineoak osatzen.

Jose Ormaetxea Arregi, Ermuko Ureta baserrian jaio zen 1919ko uztailaren 23an, aita Eusebioren jaiotetxe berean. Dioni ama mallabitarra zen, Aldasolo baserriko alaba eta bikoteak izandako 4 seme-alabetan, nagusia izan zen Jose. Ofizioz baserri-tarra eta idi-karreteroa zen Eusebio, kanterako harrien garraioan trebatua; afizioz probalaria, proba-harriak enkantxoan alde batetik bestera garraiatuz famatua egin zen Ureta plaza-gizona. Jose, maiorala izanda, orduko ohiturei jarraituta baserri-rako izango zen, baina Josetxo semeak gogoratzen duenaren harira “baserri kontuok ez zitzaizkion gustatzen, berak tailerrera eta tailerrera”. Ikastea gustuko zuen baina

eta Eitzagako eskolan hasitako formazioa Eibarren jarraitu zuen, Armeria Eskolan. 13 urte egin berritan sartu zen bertan; ia 40 urtez egon zen Eskolari lotuta, bere bizitzako ardatz bihurtuz.

Gerra ostean ekin zion eskolak erakusteari: mekanika ematen zuen Armerian eta Ermuko Ostaturkuan aton-

duta zuen gelatxo baten, arratsaldeetan, klase partikularrak. Ikasle izan zituenak maisu zuzen eta zorrotz bezala gogoratzen dute, ordenatua eta diziplinatua oso.

1946an Isabel Agirrerekin ezkondu ostean, 5 seme-alaba izan zituzten. Sallabenteko lbai-ondo etxean biziko zen familia, erreka bazterrean Zaldibarko alderdian dagoen bi solairuko harrizko etxean. 1948an, etxepean, Pablo Guridi koinatuarekin tailertxo bat jarri zuen, Ureta engranajeak izenarekin. Txiki geratu zitzaientean, gaur egun dagoen kokapenera lekualdatu ziren.

Etzeko enpresaren kargua Armeria Eskolarekin zuen konpromisoarekin partekatzen zuen: maisu zela bertan, tailer-buru, Zuzendari-orde eta azkenik Zuzendari ere izendatu zuten. Ugariak eta esangura handikoak dira bera buru zela egindako berrikuntzak. Eskolarentzat berebizikoa izan zen ondoko lur-soroa erosi ostean, handiagotzeko helburuarekin altxatutako eraikina. Baina ez zuen gutxiagoko garrantzia izan espezialitate berrien ezarpenak: 1960tik aurrera Elektrizitatea ikasteko aukera eskaini zen, 1962tik Elektronika, 1967tik Delineazioa eta 1968tik Mikromekanika, beti ere irakasle konpetitiboek bilatuz eta teknologia puntarengoarekin hornituz. Azken hau, esaterako, Estatu



mailan aitzindaria izan zen eta ekipamendu berezia erosi zen berori martxan jartzeko, makina aurreratuenekin. Haien abantailak mesederako izan ziren Eskola zein inguruko enpresa-sarearentzat.

Iñaki Alberdi, Ormaetxearen ikasle eta Armeria Eskolako irakasle izan zen; kurtso erdian irakasle barik geratu eta Josek hari desberdinak mugituta ordezkoa zelan lortu zuen gogoan du. “Hemendik eta hortik, azkenean jiratu zuen! Materia desberdinetan adituak topatzea ez zen lan makala. Halan etorri ziren Eibarrera Bartzelonatik, Madriletik zein Frantziatik injineruak, militar nabalak, erlojugile bat...” aipatzen du Iñakik. Eskola Profesionalak industrian gertatzen zenaren jakitun egon behar dira eta “Josek horretan bista itzela zuen. Etorkizunera begiratzen jakin zuen: berrikuntzak eta teknologia bultzatu, Eskolaren alde teknikoa eguneratu,



Drogetenituri, 317 zk.





espezialitate berriak sortu...” gaineratzen du.

Ekinez egina

Ez zen baina bide samurra izan: baimenak lortu behar ziren, makinak, irakasleak, diru-iturriak... “Gure aitak horretan egin zuen lan gehien, espezialitate berriak jartzeko finantziatze bideak topatzen: dirua jiratu, irakasleak kontratatu... Madrilgo Ministerioetan etxean bezala mugitzen zen!” diosku Josetxok.

Miguel Angel Lazpita arkitecto eibartarra sarritan joan zen Jose laguntzen Madrilera “makinentzako dirua lortzeko kontuokin”. Gero makinak zeuden lekuraino joaten zen: Alemanian zegoela behar zen bat, ba bertaraino Ureta, bere txapela aldean zuela. “Gogor

borrokatzen zuen, bere helburuak lortu arte, ahalegin guztia eginez pentsatutakoari eusteko!” irizten dio Miguel Angelek. Mirestu egiten zuela aitortzen du, “gizon irakurria zen, kultura handikoa, bere babes-korazaren ostean, sentsibiltate handia gordetzen zuena. Ideia ikaragarriak zituen gero! Harri-



tu egiten ninduen gai askotan zuen ikuspegiak, etorkizunari aurea hartzen beti. Armeria Eskola bere ametsa izan zen eta bera barik 50 urte atzerago egongo zen!” diosku eibartarrak.

Juan Luis Ormaetxeak osabaren ondoan egin zuen lan urteetan. “Behargina zen eta denera zailtzen, ahalegintzen den pertsona horietakoa. Tailerrarengatik asko egin zuen, baina bere ekarpenak industriaren hobe beharrez egingdako lanagatik dauka balioa, ez zelako bakarrik Armeria Eskolaren onerako izan, inguru guztiarentzako baizik” diosku Juan Luisek. Delineazio espezialitatea sortu zuen, esaterako, premia ikusi zuelako tailerren egunerokotasunean. “Enpresa batek pieza bat delineazioaren bitartez diseinatu

behar du lehenengo eta Jose konturatu zen ikasleei haiek marrazten erakutsi beharra zegoela, patroir horrekin piezok ekoiztu ahal izateko”.

Jose Ormaetxea ez zen Armeriaren kudeaketari mugatu eta bere izena beste proiektu askori dago lotuta: ekinaren ekinez sustatu zituen, besteak beste, Eibarko Arma Museoaren bilduma, Eibarko Unibertsitate Laboralaren sorrera eta, enpresa ugari laguntzeaz gain, beste eskola profesional batzuk bultzatu zituen, tartean Ermuko Iniziazio Profesionaleko Eskola.

Alemaniarekin eta Suitzarekin lan asko egin zuen arren, bere buruan bailara txiki honi zelan lagundu besterik ez zuen, bere kokapen eta estutasun orografikoagatik enpresa txikiak bultzatzera behartuta zegoen bailara industrioso langile honi. “Jende ugari lagundu zion lana bilatzen, industrial asko ezagutzen zituelako. Kanean ere geratu izan naute esker onez hori esateko” gogoratzen du Josetxok.

Sallabenteko bere etxean hil zen Jose, 2008ko martxoaren 11an, inbertitu, berriztatu eta modernizatu lemapean bizi eta lan egindako gizon ameslaria.

Estibalitz González

ALTALDI
Correduría de Seguros, S.L.

Probaleku 8, behea
943 17 01 43 · 943 17 18 02
ermua@altaldi.com
48260 · ERMUA · Bizkaia

INMOBILIARIA J.S. www.inmojs.com
943 171802
676 212575

info@inmojs.com

